EPALLA
28
Eguena
Bilbao, 1935

Euzkadi

ARPIDE-SANEURRIJA
Bilbao'kua ... ... 6,00 irko. Iru ile:
Bilbao'atazkua 7,50 » »
Idazki-Itunmena 62,00 » urtez
Atzarrijetakuak 100,00 » »
Beldayen itunduba

XXII urtia | Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17,1.° | 234 Idazkutxa | 17.810 Urrutizkiña | 6.945 zenbakija

Egunekua

Ereintzalliak

Udabarijak, lugiñak, soluetaratu-egiten dauz; txorijak zugaztijetaratu, ta ango zugatz-adar orlegijen artian atsegiñez dirala, txorotxioka imiñi. Bein udabarira-ezkero, dana da gertakixuna, dana In-egin gurea.

Lugiñak soluak landuten diñardube, azijak arten asteko asmoz, lurak astindu ta gertetan.

Zugaztijetaratu diran txorijak be, beste oren beste egiten dabe: euren umetxubak asteko kabitxubak egiteko lekubak begis-jo, azi-erete oretarako gertakixunetan iñardu.

Baña oreikandik atetiko, ba-dira beste azi-erele batzuk be: eriketa-azija ereten dabiltzanak, irakurle.

Azi-erele berezijok, euren barutijetan, eurentzako bakarik ona dan azija ereten dabe; enparaukuen barutijetan, ostera, iraka-azi txara, gazteleraz "cizaña"-azija esaten yakan azi deungia.

Eriketa-azi ereitzale berezijok urten dira, ta euren azi bedegarak ereten diñardube.

Gil Robles, Coruña'tik ixan da: Calvo Sotelo, Cordoba'n. Eta Goikoetxea ta abar ta abar, ortik, baztarak-ziar.

Azi-erele gusti oreik, eriketa-axe batek igitu ixan dauz, eta eriketa-axe bakar batek azijak-azi ereten imiñi be.

Gixarteko zorija, eurak diñuenez, euren eskubetan aurkitzen da. Baña gixartiaren zoritxarerako, orem eskubetan aurkitzen dan zorijak, ezin dau etxerako zoririk lortu. Gil Robles'ek Coruña'n esan ebana, auxe da: latefi baten 500.000 gixon gosez eukitia, gudea bera baxen gorija dala, gudea bera baxen latza ta aztuna.

"Nire lana, azi-eretzaliaren lana da—iñuan gero—, alortarik ixango dodan edo ez jakin barik, azija erein eta erein diñarduban azi-ereitzaliarena."

"Egun baten biderdijan jausten ba-naz —darai Gil Robles'k—eta lurian ezarita naguala, Goiko Jauna'gandik lurateratuba ixan dan euri mamiñaren ukutura, nik ereindako azijak ernemindi-egin dirala jakin, orixe ixango litxake nire zorijonik aundijena, ni geyen poztuko nenduken izpara."

Gil Robles azi-ereitzaliaren itzoi, coruñatarak, txaluak jo eutsiezan.

Etzuliak guda-usañik artu ezegijuen-edo, areik txalo edetak entzun ondoren, Gil Robles'ek itz oneik zuzenduten dautsiez: "Odol-ixuritzerik eztogu gura. Baña zuzentza bako bardingetasunaren laguntzale agertuterik bez. Guk eztogu aginpidian irauteko egaririk. Autarkijen izpidiaz bakarik eztogu irabazi gura, zilegi-izpidiaz baño. Baña gure alegin gustijakaz be, España'k, berak biar daun egitaraba ezin jaditxi daula ikusiko ba'gendu, orduban gustijok jagiko gintzakez; jaki ta aldun-batzara zuzendu, lendakaritzera eldu, ta batzuk uste daben baño edo gura leukien baño lenago elduko dan gure nagusitzea lortuteko biar ixanezkero, oraingo aldun-batzara apurtu, ta auteskunde barijak egin."

Gil Robles azi-ereliari, berak autortuten dabenez, 500.000 gixon goses eukitiak min aundija emoten dautso. Baña min eta gusti be, Gil'i, arein 500.000 ogipide bako gixagaxuen gosiak, gosetijentzako onura bako bariketaetan astija galtzen iñarduteko gogorik eztautso kentzen.

Aren beste anei gixonezkoren gosiak, Gil azi erelien urdalian agiñak ezari ba 'legiz, ezari, orain daulako bariketarako gogorik eleuke ixango, ba. Eta oradez, goseti arei urdaletarako biar daben ogija eruaten alegindu litzake. ¡Baña bai, zera...! Gosetijen erukirik eztago. Gosetijak atatuten diranian, azi-erele bakan orein eriketa-egarija asetako bakarik atatuten dira. Bestelan, irakurle, gosetijen gosia ogiz asetako benetako gurarija ba'leukie, gose ori ase-eziñik eztago.

"Aginpidian irauteko egaririk eztogu" —diño Gil'ek.

Baña gerotxubago oguzi ixan ebazan itz bakanetan ikusi zanez, nausi ixateko biar dabena jadizteko jagi biara ba'lebe, jagi -egingo litzatekez. Jagi ta aldun-batzara zuzendu, lendakaritzera eldu, ta aldun -batzara apurtubaz, auteskunde barijak egin. Eta oneik gauza gustijok, Gil Robles'ek gauza gusti oneik egiteko ixango leukien zijo bakara, eurak aginpidera eldu gura ixatia da.

Aginpidian irauteko egarirek eztaukiela esan eban lez, aginpide-egari dirala esan ixan ba'leu, jezarleku guren oretara eldu al-ixateko, ¿zertzu gauza bakan ez ete -leukiez egingo Gil Robles eta lagunak...?

Calvo Sotelo Cordoba'n ixan da, ta angotarai beriak eta bost esan dautsiez. Oraingo gose au, 1931'ko joralan jayo zala iñotsen. Primo de Rivera'ren aldijan ezeguan goserik—diorka esaten eban.

Euren alderdijan, edo "Renovaciño" edo dana dalako oretan alderdikidetuta dagozanen artian, euneko larogeta amar, bakaldarak zirala autortu eban, Sotelo'k.

Gil Robles eta lagunak, larogeta amaretik gorazkuen artian-edo zenbatuten dauz, Calvo'k. Gil'gaz gomutau zanian, ba, olantxe iñuan: "Gil Robles aginpidera eldutenba-da, ondo egongo da Baña eldutenezpa-da, eurai eztagijuela erurik ezari".

Eta gero, orain aginpidian dagozanai, gogor eraso eutsien, eta txakurenak esan.

Cordobatar entzuliei, alango berba gogorak, piper-miñez beteriko itz areik entzutia atsegin ixan yaken. Eta Calvo'ren zapaladea sariuteko, txalo zaratatsubak jo ebezan.

Txaluen ostian, ¡gora! batzuk be entzun ziran. ¡Gora Sotelo! iñuen batzuk. ¡Gora Primo! bestatzuk. Eta ¡Gora Sanjurjo! urenguak.

Txerenaren jarai dabiltzanak, ¡gora txerena! esan oi-dabe.

Eta azi-erele orein eretxiz, izpidian dagozanak, eurak dira. Aginpian egoteko eskubidia daukenak be, eurak. Aginpidetik gura daben gustija egiteko eskubidia be, eurena da. Goiko Jauna ta uskurtzea eurek deritxuen erara, eurak gura dabezan eriketa-nastietan erabilteko eskubidia be, eurena dala esan biar. Goiko Jauna'ren aurian, baña, emen beko gixontxuben txakur-amesak eta ¡gora!! eta ¡berak! eta abar, beste neuri bategaz neurtubak ixango dira.

Bitartian, baña, emen, lurian, gixontxuben arokeri-bobilak, biraka aundijak egin biar dauskuz.

Biraka gustijak eginda be, baña, eriketea jaungo-ixun biurtu ixan daben azi-erele oreikandik zabalduko dan azija, iraka-azija bakarik ixango da, benetako azi-ereliak ereindako azija bedar-txarez nastauta imiñiko daben "cizaña" edo irakea.

Azi-ereliok, ortik, Ebros andirik dabiltzan artian, guretzat, emendiko alóian bixi garanontzat, an ziar ereten daben iraka orein alorteak nastauko gauzaneko ariskurik ezta ixango. Bada-ezpada be, oratiño, onanzko biderik artu eztagijentzat, Ebro-mugetan aresijak iminden astia ona ixango litzake. Iraka-azi ori bein etxeratuzkero, txakijan sartzen diran tximitxak uxatutia baño gatxagua ixaten da, ba.

URIBITARTE'TAR IBON.

Durango'ko antzerki-jaya

Jai edera benetan igande aratsaldekua; antzeztalde durangotara txukuna ta erti-bidez dabilana da. Ori bakarik ez baña, durangotarak beste gauza bat dauke euren aldetik, bestiak eztaukena: antzezkijak antzeztu dauzan Batzokijetako lenengo taldia da berau, beste gustijak baño lenagokua. Oregatik beroni beste gustijai baño geitxubago eskatu biar be ba-yako; ta, zorijonez, beste gustijen ganetik eskatuten dautsagun erti-mamiñau ganezka damosku antzeztalde durangotarak.

Igandeko egitaraba iru antzerkigaz bete zan, eta irurak begiko ixan yakuzan. Guri bakarik ez baña, beste gustijai bere bai. Notiñetan asko ixan zan, eguraldija antzokirako etzanaren: igandeko eguraldija "txakolinetarako" onegija zalako gure ustez txara ixango zan antzokirako; zorijonez baña ogendu egin gintzazan. "Astarloa-etxe" gustija goraño apel-apel ixan zan, notiñez ganezka.

Ori alde batetik. Beste aldetik antzeztalde durangotarak antzezki txukunak autu ebazan bere antzezkai.

Lenengo antzerkija Altzaga'ren "Bost Urtian". Guri gusti-gustija atsegin-ixan yakun, lenengo atala bigarena baño geyago. "Txilbora" lenengo atalean bigarenean baño atsegiñago ixan yakun, Azurmendi'k atal bijetan obeto-eziñean antzeztu ebanaren: Azurmendi baña antziñako antzezlarija dogu: antzezlarija bakarik ez, ertilarija da berau. "Patrixio" (Sarionandia), be, lenengo atalean onduen: bigarenean piskat galdu egin eban gure ustez; lenengo begirakune kotau, estu ta larigen gauza edera... "Damasa" ta "Lukax" polito. "Axun" eta "Pantxo" bijak edero. Nik baña bijendako daukat zegozertxo. Larinaga sekulako antzezlari ta ertilarija agertu yaku: eta au ezta txantxetan, benetan, bene-benetan baño. Egija diñoskat, mutil, or eure "zertxubori" ("zertxuba" yiñotsat, "rutina-apura" esan gura dauskat) bezeu ta alde batera izten ba-dok gixon andija ixango az antzokijan. Arija luzia daukak, ortik gustija eginda yak; ia beste "zertxubori" euregandik aldenduten ba-dok... Ta zu, Lexareta liraña, zu be edero. Ori ta gusti be (ba-dakixu, ikusliak gauza askotxu ikusten doguz, biarba eztiranak) zure notin ori azketxu dabilanaren oindiño azketxubago ba-lebil asko be obeto.

Bigaren antzerkija "Erregalo de boda". Polita ta begiko ixan yaku. Diez anderenuak edero egin eban: ondo erakutsi eban bere antzezlari arija. Ezta antzezlari-kuxuba beste asko diran letz, benetako antzezlarija baño. Laka bariz... ¡a zan Laka, a! Edero, txo, edero. Oindiño baña neure ustez, ik be ba-dozak akats txiki -txiki batzuk; akatsok baña berez kenduko yataz, Azurmendi'gaz asko ibilten ba-az batez be.

"¿Me caso!" Auxe be atsegin ixan yakun, antzeztuteko gatxena danaren. Bestiak beste ez baña, tira edero.

Zorijonak antzeztalde durangotarari.

IKUSLE.

Arantzatzu'ko Andera Miren

Aloña ta Artia mendi-bitartean, Elorola'n asita Gezaltza'raño, etenbako zadorr edo erekaro sakona dago, eraldoyen batzuk goldatzaragaz egindako ildo edo areka-antzo. Erekaro oren Aloña-aldea burutz-burutza da, alan be azken-aldera; ardientzako baño be auntzentzako zeaf egokiagoa; alde bietan elorria ugari aurkitzen da, landara sendoagorik azteko lurik ez-eta. Elorri oneri oñatiarak arantzea deritxoe, Gezaltza baño iru bat ordu-laurden gorago aurkitzen dan burutzari, bariz, an inguruetan ebiltzan artzayak Arantzatzu-izena ezari eutsoen. Izen au artzayen artean ezagun-ezaguna zan, eurak ezaria izan be-ta... Emen edestuko doguzan yazokunak toki itzaltsu oretan yazoak dira.

1469'garen urtea da. Euzkotarak aspaldi alkaregaz ebali izan daben guda gori-odoltsuak oraindik iraun dirau; oraindik izkilu edo arma eruki-bakoen otsa zaurituen aiene larien artean an-or-emen ozen entzuten da. Euzko-lura odolez asetuta egon-aren, aspaldi ur-egari da, luretik gora jagiten dan lurun bakara odol-luruna da: euzkotaren zoritxarak gañez egiteko, gudearen laguntzat legoratza ta gosetea agertu dira. Urte oretan, andi-mandikien arokeri ta nagusikeriak sortu ta eutsindako gudate lotsagariak atzena izango dau: Jaungoikoa Euzkadi'gaz erukitu egin da ta gudan daragoyoen anayai bakea eskeñi dautse. Ekatxaren ostean ostarte argia etori oi dan legetxe "Jaungoikoa asaratu ordukoxe erukitu egiten da".

Aloña-ostean, Arantzatzu eritxon atxartean, Baltzategi'tar Erodeika 18 urteko mutil gaztea ardiak pilatzen ebilen. Alango baten, elori-ganean irudia dakus, notin-irudia, andera-irudia, besoetan seingotxoa dabela. Artzaitxoa, toki aretan onango irudirik aurkitzeaz ikaratuta ta zer egin eztakiala geldiitzen da, alan be irudia Jaungoikoaren amarena dala igari daunean. Azkenez, belauniko jarita gurtu egiten dau. Erodeika'k iluntzen ardiekaz etxeratu zanean Arantzatzu'n zer jazo yakon gurasoai azaldu eutsen ta etxekoen artean urengo egunean jazokun arigari onen bari oñatiarai emotea ebatzi eben. Ebatzi ta egin. Biaramon goxean Erodeika'k berak jakitun imini ebazan. Oñati'ko agintariak lelengotan artzayaren esanak amestzat artu ebezan, baña mutilaren bentasuna ta ekiña ikusirik erdi-siñistu egin eutsoen ta, olango zeretan jazo oi danez, ikuskurea sortu yaken. Urengo egunean, egun-argiaz bat abade ta eritar, joale -otsez batuta, Arantzatzu'rako bidea artu eben, arenka, ta bai artzayaren esanak egi utsa zirala euren begiz ikusi be. Eta izan be, Andera Miren'en irudi edera idoro eben elori-ganean. Jaungoikoari eskarak egin ta irudi agurgaria oroloz estalita atzera Oñati'ra jatsi ziran. Gauza arigaria! Oñatiarak etxeratu ziranekoxe goyak belundu egin zirian, lañoak ur-ernaritu ta aspaldi alperik itxaroten zan euria naro-naro jausten asi zan. Jazokunotan Jaungoikoaren eskua agiri-agirian ebilen.

Len be esanik daukogunez, Andera Miren agerturiko tokia etxerik-eta egiteko baño, auntzak atxik-aitz ikotika ibilteko egokiagoa da. Au dala-ta, oñatiarak Jaungoikoa idororiko irudia Oñati'ko Mikel Deunaren ertxadonera ekartea erabagi eben ta bai ekari be, baña—Jaungoikoz urean—irudia urengo egunean Oñati'n barik Arantzatzu'n zan ostera be. Jazokun bakan onek iragarten ebanez, Andera Miren'en guraria Arantzatzu'n bertan egotea zan, ez baña oñatiarak beingoan igari. Nozonoz igarita, Irudi gurgaria agertu -toki berean lelengotan basatxono edo ermita apala eragi eben oñatiar jaungoikozaleak, geroago, elexa ta lekaretxe bikain -aroak eta baita ostatua be.

Lekaretxean lelengo jari zirian lekaideak Eskar-lekaide edo mertzedekoak izan zirian, gero Pantzeskatarak sartu zirian, uren Domekarak eta, azkenez, ostera be Pantzeskatarak. 1552'garen urtean, lekaretxe osoa suak iruntsi eban baña, Jaungoikoz, suak txadonari ez eutson ukutu. 1622'garen urtean, ostera, lekaretxea ta elexea biak ere zirian, axe Irudi deuna ta bera egoan tokia bakar-bakarik osorik geldituta. 1811'garen urtean Pantzeskatarak Arantzatzu'tik atera egin ebezan eta oñatiarak Irudi deuna, jagola barik geldítzen zanezkero, ertxadonera eratsi eben. 1814'garen urtean, Pantzestea amaitu zanean, Pantzeskatarak bariro sartu zirian Arantzatzu'n ta oñatiarak urte berean eroan eben Irudi deuna bertara. 1822'garen urtean, españar-gudaritaldea eldu zan Arantzatzu'ra ta lekaretxea ostuta gero sua emon eutsoen. Lekaideak euren abi maitetik indarez uxatu ebezanean, oñatiarak Jaungoiko-Amaren irudi maitea Bidaureta'ko elexara eratsi eben. Urengo urtean, Pantzeskatarak eta arako Irudi deuna atzera Arantzatzu'n sartu zirian. Karlatar-gudate nagusira eldu gara. Euzkadi 'ko semeak alderdi bitan bananduta doguz: "Baltzak" eta "Zuriak" deritxe. Gudate luze oretan, 1834'garen urtean, bariro be gudariak jo ebezan Arantzatzu 'ko lekaretxeko ateak, ez baña lekaide -jantzi-eske, beste asmoz baño. Euzkotaron lotsagaritzat, gudariok gipuzkoarak zirian, Rodil españar gudal-buruaren menpeko gudariak: "baltzetarikoak". Lekaretxeari ta elexeari lau ertzetatik su-emon eutsen ta ormak ez beste guztia erauts egin zan.

Egun negargari aretan Arantzatzu'n amaika erti-lan edef eta idazti aldintsu efe zan; Murillo, Hernandez eta Cano ospatsuen erti-lanak zezpalak bailiran erauts egiñik geldítu zirian! Irudi deuna lekaideak eurekaz batera Oñati'ra eratsi eben, 1846'garen urtean, aurztik lekaretxe ta txadon bariak eragita, Irudi gurgaria atzera Arantzatzu'ra eroan eben oñatiarak eta arezkero an dago Aloña'tik Euzkadi-zeaf eskaf ugariak esku zabalez edatuten. Euzkotarak, naiz Auñemendiz onantzakoak naiz arantzakoak, gizaldiz-gizaldi Arantzatzu'ko Andera Miren'eri zaletasun andi-etenbakoa izan dautsoe. Arantzatzu 'ko Irudi deunaren oñetan belaunikatu dirianen artean Loyola'tar Iñaki Deuna aurkitzen da: 1522'garen urtean, Montserrat 'era joan-aurretik, gau oso bat igaro eban otoizketan Aloña'ko Andera Miren'en oñetan. Amaika bestek Arantzatzu'rako aldapa bizia egarti ta itxaropentsu igaro izan dau, baita amaika andik bera biotza pozaren eztitan dabela jatsi be: biotzeko bakea ta soñeko osasuna gura dabezanak boaz ustetsu Aloñamendi'ko Andera Miren'en oñetara. 1886'garen urtean, Gazteiz 'ko gotzañak Irudi deunari burestun joria ezari eutson, Bedita XV'k ostera, Gipuzkoaren eskariz, Gipuzkoa osoaren Zain iragari eban Arantzatzu'ko Andera Miren.

Andera Miren'en irudiak luzeran kana -erdi inguru dauko; arpegia bena ta maitekora; bekokia zabal-nasaya; begiak baltzak, bizi-biziak, benak eta nor-begira arexeri begira; bepuruak baltzak; sura zorotza ta txikia; ezpanak bardin-gorizkak; margoz baltzerana da. Agertu zanezkero iñok ukutu ez-aren, arpegia osorik dago ta dizdiz-egiten dau.

Ezkereko besoagaz Josu Umeari deutso ta Onek ezkereko eskuan ludi-irudiko bolatxoa dauko. Neskutzak berak be eskumako eskuan ikur bereko bolatxoa darakus. Irudi au Andera Miren'en soin oso -irudia barik soin-erditik gorakoa da ta jantsi ederez jantzita dago. Aztuna da-ta, arizkoa da, urean.

Arantzatzu'k bere entzute andia iñori baño geyago ta lelen-lelen Andera Miren 'en bitartez egindako alatz zurgariai zor yakenik ezin ukatu, baña ez uren Pantzeskatar lekaide agurgariai zor yakenik be. Gizaldiak-zeaf Arantzatzu'ko lekaretxetik lañoak-gora etentzaka igoten izan dan otoi-luruna iñontz gozo egiñik jasten izan da atzera lur elkorera.

LARAKOETXEA'TAR B. J.

Norantz goaz emakumeak?

I

"Zuk, gizon, zeure bekokiko izerdiakaz ogia irabaziko dezu. Zuk, emakume, aurak oñazez izango dituzu."—Génesis, III, 19, 16.

Gudate aunditik onantz gizadiaren oiturak egin duten aldakuntza ikaragarria da.

Atzekoz aurera eta goitik-bera aldatu dira jazteko erak, jolastutzekoak, lana egitekoak, umeai erakustekoak, bizitzekoak, etxe bariak egitekoak, etxe-baruak apaintzekoak, ibiltekoak, maitatzekoak, jan eta edatekoak eta abar, eta abar bezte era guzti guztiak.

Esan geinke gudate nagusiak eraman zuala ordura arteko, uritasuna, eta beste uritasun bari bat sortu dala Europa'n eta baita ludi osoan ere.

Emakumearen bizitzak egin du aldakuntzarik ikaragarriena. Gure oldoskun edo pentzamentutik gure alaben oldoskunetara dagoan bidea, gizadiak, lengo abiadan ibili izan ba'litz irureun urtetan etzuan ibiliko.

Emakumeori eman dizkigute, len gizazemeak bakarik zituzten eskubideak; autarki edo botoa, eta autarkiarekin aukeratuak izateko eskubideak.

Ni neonek ezin esan nezake eskubide abekaz kalte egin digutenik: Urte askotan gizazemeak bakarik agindu dute munduan, eta ikusten degu mundua nola dagoan.

Nere ustez (eta au egi-egiaz diot) batez beste, emakumeak gizonak baño geyago balio du. ¡Ez asertu gizonok, aren! Nik ez det gure ta zuen artean gudarik sortu nai. Bai dakit gizazemeak eta emakumeak berdiñak ez gerala. Ez noa nork bulu geyago edo nork biotz aundiagoa duan eztabaidarik sortzera, nik gauza bat bakarik esan det, eta au egitzat daukat: Batez beste gizazemeak baño emakumeak geyago balio degula. Ara zergaitik: Emakumeak, gizonak egin al lezakezan gauza guztiak egin al ditualako eta gañera arek ezin egin dituan beste gauza asko ere bai.

Guazean ia gure baserietara eta ikusi dezagun emakumearen bizimodua. Ez uste izan, emakumea gizona baño indar gutxiagoduna dalako gizona baño beranduago oetik jaikitzen danik. ¡Bai zera!

Senarakin batera, egun sentian, Senararekin batean ekiten dio atxurean, senaren ondoan layan, senaren ondoan belara ebakitzen, senaren alboan su-gorizko eguzkipean garia ebakitzen ¡gaxoa! eta senaren aldamenean sari askotan garia jotzen.

Eta ez dezute iñoiz ikusiko lanean atzean galditzen danik. Gizona eltzen dan lekuraño eltzen da bera ere.

Gure baserietako emakumea, langile ikaragarria dezu, gizonak baño lan geyago egiten du, etxetik kanpoan gizonak ainbestetxe, berdin, berdin, eta etxe barruan bariz, berak bakar-bakarik jatekoa gertatzea, oiak astintzea, ontzi eta eropak garbitzea, eta seme alabak mundura ekari eta azitzea.

Euzko basetxeko emakumeak, berak betetzen ditu, Jaungoikoak Atzegiñezko Baratzan gizonari ta emakumeari banaka ezaritako aginduak: "Zuk gizon, zeure bekokiko izerdiakaz ogia irabaziko dezu. Zuk, emakume, aurak oñazez izango dituzu".

Gauza bat ia astu zitzaidan. Gure baserietako gizonak, gutxienez ilean bein aratzalde bat eurena izan oi dute. Peri eguna. Beyak ikusi, atxur edo itei bat edo beste erosi, lagunakin itz egin ardotegian zerbait artu... Aratzalde edera benetan, peri egun aratzaldea, oporketa aratzaldea.

Bera gogoan dutela, eta bere itxaropenean il osoan ler egin arte lana dagite gure baseritar zintzoak.

Emakumientzat ordea ez dago peri egunik, ez dago oporketa aratzalderik. Peri egunean gizonen lan guztiak ere bere gañera eroritzen dira.

Ez det nik esan nai emakumeak ere perira juan bear lutekenik ¡ez iñola ere orelakorik! Perian baño etxean leku egokiagoa dute gure nekazari emakumeak.

(Daraike)

ARITOKIETA.

Abadiano.

Errijetatik

ARRASATE

AGUR.—"Lauaxeta" euskaltzale sutsuari ta euskal-irakurle guziai agur. Emen berriz ere alkarekin. Ur aundi-zikiñak datozenean, lurari gogor eldu, burua makurtu ta irauten du landare txikiak berriz burua jasotzeko garaia iritxi arte. Banaka banaka, ari dira lengo idazle guziak azaltzen. Lengoak eta geigo; urez aseta landareak ugaldu ta mardulau egiten bait-dira.

UDABERRIA.—Oso sarera ederra egin digu udaberriak. Eguraldi zoragarriak ditugu; goiz ozkiri, eguerdi bero, iluntze epel. Mendiko ibili batzuek egiteko aukerako egualdiak. Zuaitz batzuek loratu ere egin dira, ta danean ikusten da bizitz berria. Gora udaberria!

GARIZUMA.—Garizuma santua kristauontzako garai lazgarria izan aren, igandero jotzen dute musika gure enparantza nagusian. Ez da oratik dantzazale asko ikusten, eta ola obe.

Igande-aratsaldean asiera eman zioten mixioaldiari bi Aita prantziskotarak; eliza beterik zegoan "Atoz pekataria" biotzez abesten. Arnari ugariak emango al ditue.

ERIOTZAK.—Aspaldi gaixorik egonda, lengoan il zan Eraimunda arainsaltzaile zar ezaguna. (G. B.) Baita Donostia'ko osategi batean ebakuntza bat egin ondoren, eztaritik gaixo zegoan Kortabaria'tar Toma ere. Eusko-Langileetako gizon zintzoa zan. Alargun eta seme-alabai gure naigabe-agura. (G. B.) Gaur goizean bariz gosalondoan bat-batean il da Maiñazi largeitazapi urteko emakume zimel elizkoia. Gure ikastolan ibilitako Juanito ta Pedro apaizgaien birizekoa zan. Gure samin-agurik beroena etxeko guziai. (G. B.)

MIREN ARANTZATZU. — Euskal-izen polita jari zioten atzo bataiatu zuten nexka txikiari. Urutia'tar Pantzeska irakasle izena ta Latsagabaster'tar Agurne 'ren lenengo alabatxoa da, gure ikastolako Joxe Luis'en arreba. Zorionak.

ANTZERKIA.—Lenagokoan umeentzat izan zan, eta oraingoan nagusientzat eman bear izan degu mutikoak "Ilargi bete" Napafoa'ko San Permin'en aldiko kristau -antzerki edefa. Gero "Patxi eiztari". Ta azkenean neskatilak "Trakubiltzailea". Txalorik asko entzun zan.

Datoren aste arte, Jaungoikoak gura ba dau.

IKASLE.

SORALUZE

Aspaldi ez degu idatzi euzkeraz, izparingirako beñipein. Zerbait egingo ete-degun, ba, asi gaitezen: bada zer idatzi ugari eri koxkor onetan, geure Udal-ixuna naikoa amaika lero iruntziteko, bada "xelebriak" ditugu aspaldi onetan. Igarotzen diran tokian Atila'ko zaldien antzera arastoa utzi bear.

✤ ✤ ✤

Igande aratsaldetik Elgoibar'a juan giñan. Pelota jokoak bultzatu ginduzen, mixioak ere baziran baña, obe egia esatia... Mordoxka edefa bildu giñan Kamiñerokuan, Elgoibar-Soraluze ikusten. Eta garbi ikusi gendun bai, zea, zerbait baño geyago ditugula Gastesi ta Agare. Gure bikoitia baño askoz gogorago beñipein igandez, beraz, eurak izan bear legez garale.

Aurtengo kanpeonatoko txapela ez da leku txarian izango.

✤ ✤ ✤

Aberi-Etxea'n larunbata gabaz Galastegitar Mikel ikusi gendun antzoki erdian itza mar-mar dariola. Lege-gizon gaste onek euzkeraz erakutsi zigun EUZKADI naziño lez zer izatera eldu bear dan. Oso ederki, Mikel.

✤ ✤ ✤

Datorenean, 30'gn., beriz, Lakuesta'tar Koldobika'ri entzun bearian gara.

Dantza abesti zarrak

Abadiño'n San Blasetan
egozan dama gaste bi,
bata zan baltzerantxua
bestia bariz lar zuri.

Larosa mayetzekoa
ipinten zatut kontuan,
batek aits-emonagatik
beste asko dagoz munduan.

Nire matian gonia
urezko oratzaz josija,
sedazko ari piñagaz
gustija dozu egiña.

Begi ederak nok ditu?
baltzak edozeñek ez ditu
iraña egingo zeustan
zurijak ixan banitu.

Baltzeran graziosa
parerik gabea,
munduan askok daki
nazena zeuria.

Munduan askok jakin
ta zeuk ez jakitia...
ondo egiten dozu
diximulatzia.

Neskatilatxu pertxeta
gerija dozu liraña.
zure gorputzak dirudi
eretratuan egiña.

Erotako arijak
uruna darijo,
mutiltxu txanbeliñok
eztabe balijo.

MAÑARIKO.

Gaste au ere lege-gizon izateko a[illegible] txikiren baten bearez dan ezkero zer[illegible] jakintsu azalduko zaigu, noski.

Baña itzaldia erderaz orastuta dala[illegible] aitzen emon dau beonek. Ori erin ube[illegible] akats bat ez danik, Koldo..., eta ube[illegible] lasterr, ain maite duan "Lizardi" zan[illegible] ikastola bidezko jakintza azaldu bear di[illegible]

✤ ✤ ✤

Juan zan ostegunez Udal-irunak egi[illegible] ko batzarean ontzat emon eban euren [illegible] gun edo "gestore" dan Ariznabarreta jau[illegible] ari kalera datoren edateko urari bere etxe[illegible] inguruan kañu baten bidez bear dabe[illegible] artzia.

Endore izenekoa, Eguren jaun[illegible] joa oso nekatuta, oporaldi dan, baizarik[illegible] ak bear ba, arnasa artu badau eta bi[illegible] tean orelako erabakiak Udalian. Bear ba[illegible] iñok igarteke usteko jai eskatu debe[illegible] eta zergatik. Ba gizona, erabaki gure ar[illegible] erudun beste guziak beste edo geyago [illegible] ta nayez izan bear.

✤ ✤ ✤

Ezozi'ko bidea ere lengo tokian [illegible] ba. Beti entzuten oraintxe asiko, [illegible] egingo, baña "xalto ta xalto" beti [illegible] baten. Orain udako eguzkian geitxo [illegible] otuko ta, obe izango negurako uzi.

DRISDRAS.

ZARAUTZ

"GIBEL-AUNDI" TA "AMA" ZA-RAUTZ'EN.—Atzo ere ederaldi zan [illegible] zardi Antzoki bikañak.

Izan ere alako antzerki jayak [illegible] ziran. Aurez esana gendukan berala, "Gi[illegible] bel Aundi" ta "Ama" genituen gure [illegible] teko. Gure antzezlariak beren kemen [illegible] moak agertu zituzten bein ta berriz [illegible] ta Lizardi Antzokia ia beterik [illegible] jendetzak, txalo ta txalo zegon [illegible] gabe.

"Ama" antzerkia oso begiko egin [illegible] Zarautz'tarori, ta bukaeran, bere [illegible] arentzat, ta euzkerara biurtu dua[illegible] kunegi argiarentzat itz gozo asko [illegible] zan.

Ongi mereziak alajaña!

Ta irakurle, ona igandez senti ge[illegible] na: ondo antzeztu zala, ondo atera [illegible] baña oraindik obetuago atera lite[illegible] emengo "Gazte Alayak" artean.

Beriz ere lan berarekin aurkezte [illegible] ko dala derizkiogu. ¡Kontu eman!

Zorionak jai eratzale bizkor, antzez[illegible] trebe, (tramoyista) bikain, margolari [illegible] ta gañontzeko guziai: berezi bero[illegible] "Gazte Alayak,'en zuzendari ta ante[illegible] tzale jatorr Zinkunegi aipagarri [illegible] era!

BASARI.

MOTRIKO

Beriro lanera deitzen digute. ¡Ba[illegible] gera ba! Negu guzian eskuak [illegible] ditugula egon gera ta orain [illegible] beatz artean ez dek eraz edukiten... [illegible] tsetan ere ba'dik beronek San An[illegible] paola lañutzeko lain. Udaberia jay[illegible] kotxe eman digu baratzako gi[illegible] Lanerako ordua degularik ekin bu[illegible] layaz lur arotzean, belar-gastrak[illegible] traitik atera, landare beritu, ta [illegible] aren osasunerako zerbait jasoten [illegible]

✤ ✤ ✤

Aspalditik gaxo gendukan Bale[illegible] Kistine ta larunbata gabean il zan.

Uranga'tar Kepa Imanol'ere egun [illegible] an Jaungoikoak beste mundurako [illegible] zuan. Lagun nazute atsekabean, ta [illegible] atsedena emayezu Jauna.

✤ ✤ ✤

Ontzi aundiak utzi diote korda [illegible] tzari. Sare sasoya orain. Trena [illegible] ko baño dotoreago kaskatu ta [illegible] ia gorriren bat barruan suertatzen [illegible] yoten. Ontzi txikiak orandik beri[illegible] jaraitzen dute Poliki dakarte gañera.

✤ ✤ ✤

Igandian gure pelotariak Eibar'en [illegible] tuen angoakin jokatzea tokatzen [illegible] ten ta. Gureak galdu zuten (22-21) [illegible] ontan Bergararakin neurtuko dira [illegible] efiyan. Partidu au aratsaldian izango [illegible] 3 ta erdietan. ¡Ez eztutu mutilak! [illegible] daka izaten dituk lukainkak.

✤ ✤ ✤

Negu guzian ixilean egon dira [illegible] lariak otsak kukilduta bezela suberan[illegible] Orain egualdiaren epelak emaitu ta [illegible] ona non natorkiguzan bizi dirala bizi [illegible] eraziaz. Igarotako igandian E. A. B. [illegible] toa bete jenden aurez-aure, "Ama" [illegible] Mendibetaren lariak" antzerki sapa[illegible] Guzien lan ondo egiña jendeak txalo [illegible] ezkertu zuan.

✤ ✤ ✤

Aitaren gaxo izpara artu ordubete [illegible] emen daukagu Bilbao'tik etorita Ur[illegible] 'tar Iñaki apaiza ta anaya.

Urteisti'tar Imanol (Goxeri) [illegible] gastea Zaragoza'ra jun zaigu.

Igandian ementxe ikusi gendun Le[illegible] 'tar Endika bere sendiakin etorita.

Amabost egun oetan "Murugain" [illegible] emen daukagu.

✤ ✤ ✤

Azkenez irakurle ba daukat bere [illegible] bat zuretzat. Ementxe kolkoan [illegible] iñok ez sumatzearen, zuretzat bakarik [illegible] -ta. Ez da beria ez, naikoa zar. Ori [illegible] tatzera nijoakizun jostunak (sastre) [illegible] nolako konpoztura egingo lioken! [illegible] negi'tar Kuireka gasteak, "sastrería" [illegible] du bere etxean. Oso ezaguna gurian [illegible] ko semea, abertzalea gañera. Jostun [illegible] tarenguetakua degu. Bartzelona'ko [illegible] demia de Corte,'ko examiñetan [illegible] tariko. Beaz zuen jantziak onak eta [illegible] keak nai badezute badakirute nora [illegible] "Bar Andonegi,'ra. Nik ez esa[illegible] emen egin bearko det.

Agur ta laister are.

ANDO[illegible]

TXIKORO (ACHICORIA) BAKE

EUZKELDUN TXAPEL OLA
Boinas Elósegui
TOLOSA

INGI BILDEGI
Papelería de Oria.
MORAIZ'TAR JOSEBA MIREN
TOLOSA
Teléfono, 154